## 2021EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 40 NEKAZARITZA

**Programa:** 40 SAILEKO ZERBITZU OROKORRA

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2021

**Departamento:** 40 AGRICULTURA

**Programa:** 40 SERVICIO GENERAL DEL DEPARTAMENTO

## SAILAREN MEMORIA

## I. MEMORIA

Nekazaritza Sailaren buru da haren titularra den foru diputatua, zeina izendatu baitzen 2019-2023 legegintzaldirako foru diputatuak izendatzen dituen diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 325/2019 Foru Dekretuaren bidez.

Aldundiaren sailen egitura zehazten duen diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuak xedatutakoaren arabera, hauek dira Nekazaritza Sailaren eginkizunak eta eskumenak:

- Nekazaritza.
- Abeltzaintza.
- Nekazaritza garapena eta esperimentazioa.
- Landa garapena eta laguntza europarrak.
- Mahastizaintza eta enologia.
- Mendiak, eta baso aprobetxamenduak eta zerbitzuak
- Arrantza eta ehiza baliabideak kudeatzea.
- Nekazaritzako azpiegitura hidraulikoak.
- Ordenamendu juridikoak adierazten dituen gainerako guztiak.

Zuzendaritza bakarraren pean jarraitzen du Sailak eta bere baitan hartzen ditu saileko zerbitzu guztiak.

Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 14/2016 Foru Dekretuaren bidez, Nekazaritza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onetsi zen, eta luzatu egin du diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren hamahirugarren apartatuak. Bada, Nekazaritza Zuzendaritzaren pean, eginkizun nagusi hauek dituzten zerbitzu hauetan egituratu da:

- Nekazaritza Garapenerako Zerbitzua, funtsean Landa Garapenerako Planean sartutako laguntzak eta

## MEMORIA DEL DEPARTAMENTO

## I. MEMORIA

El Departamento de Agricultura al frente del que se encuentra el Diputado Foral como titular del mismo, nombrado mediante Decreto Foral 325/2019 del Diputado General de 5 de julio por el que se nombraba diputadas y diputados forales para la legislatura 2019-2023.

Las funciones y áreas de competencia del Departamento de Agricultura, de acuerdo a lo dispuesto en el Decreto Foral 324/2019 del Diputado general de 5 de Julio, por el que se determinan los Departamentos de la Diputación, son las siguientes:

- Agricultura.
- Ganadería.
- Desarrollo Agrario y Experimentación
- Desarrollo Rural y Ayudas europeas.
- Viticultura y Enología.
- Montes, aprovechamientos y servicios forestales
- Gestión de Recursos piscícolas y cinegéticos
- Infraestructruas hidráulicas agrarias
- Las demás que señale el ordenamiento Jurídico.

El Departamento continúa bajo una sola Dirección aglutinadora de todos los Servicios que lo componen.

Mediante Decreto Foral 14/2016 del Consejo de Diputados de 9 de febrero se aprobó la estructura orgánica y funcional del Departamento de Agricultura, que ha sido prorrogada por el apartado décimotercero del Decreto Foral 324/2019 del Diputado general de 5 de julio, bajo la dirección de agricultura se estrutura en los siguientes Servicios cuyas funciones principales son las que asimismo se indican :

- Servicio de Desarrollo Agrario, encargado de gestionar fundamentalmente las ayudas integradas

LGENFek kofinantzatutako laguntzak kudeatzearen arduraduna. Hala, honako honetarako laguntzak kudeatu, zuzendu eta ziurtatzen ditu: nekazari gazteek enpresak sortzea edo lehen aldiz instalatzea, nekazaritza ustiategien modernizazioa, landa azpiegitura hobetzea, besteak beste, modernizaziorako laguntzak, ureztalurrak finkatzea, mendiko nekazaritzarako konpentsazio kalte ordainak eta mendiko nekazaritzaz bestelako leku batzuetakoak, eta nekazaritza eta ingurumeneko laguntzak. Horrez gain, lurzatiak biltzeari eta landa bideen erregistroari buruzko alderdi guztiak kudeatzen ditu. Zerbitzu honen mende dago landa bideak zaintzen dituen atala ere.

Bi atal ditu bere eginkizunetarako:

- Nekazaritza Sustapenaren Atala.
- Nekazaritza Egituraren eta Landa Azpiegituraren Atala.

Gainera, eskualdeko nekazaritza bulegoetara joaten diren bi talde ibiltari ditu zerbitzu honek.

- Abeltzaintza Zerbitzua, abeltzaintzako sektoreari lotutako guztia kudeatzeaz eta izapidetzeaz arduratzen da, eta atal hauetan biltzen dira bere eginkizunak:
  - Abereen identifikazio eta erregistroaren eta trazabilitatearen arloa
  - Epidemiologiaren eta abere osasunaren arloa
  - Elikagaien segurtasunaren arloa
  - Abereen babes eta ongizatearen arloa
  - Abeltzaintza Laborategiaren arloa

Zerbitzuak Abelazkuntza Atalaren laguntza du, bere eginkizunak betetzeko.

- Zuzeneko Laguntzen Zerbitzua. Europako funtsek edo zuzeneko laguntzek % 100 finantzatutako laguntzak kudeatzeaz arduratzen da batez ere, mahastiak birmoldatzekoak eta berregituratzekoak izan ezik, eta Europar Batasunak eskatutako



en el Plan de Desarrollo Rural como ayudas cofinanciadas por el FEADER. Así, gestiona controla, dirige y certifica las ayudas destinadas a: creación de empresas por jóvens agricultores o primera instalación, , modernización de las explotaciones agrarias, mejora de Infraestructura Rural, entre las que se encuentran las ayudas para modernización, consolidación de Regadíos, Indemnizaciones Compensatorias de Agricultura de Montaña y de Zonas diferentes de las de Agricultura de Montaña y Ayudas Agroambientales. Asimismo gestiona todo lo relativo a la Concentración Parcelaria y el Registro de Caminos Rurales. De este Servicio depende el cuerpo de vigilancia caminos rurales.

Para el desempeño de sus funciones cuenta con dos Secciones:

- la Sección de Promoción Agraria
- la Sección de Estructura Agraria e Infraestructura Rural

Además este Servicio cuenta con dos equipos volantes que se desplazan a las diferentes Oficinas Comarcales Agrarias.

- Servicio de Ganadería, encargado de gestionar y tramitar todo lo relativo con el Sector Ganadero, así sus funciones se agrupan en las siguientes Areas:
  - Área de Identificación y Registro de Ganado y Trazabilidad
  - Área de epidemiología y Sanidad Animal
  - Área de Seguridad Alimentaria
  - Área de Protección y Bienestar animal
  - Área del Laboratorio Pecuario.

Para el desarrollo de sus funciones este Servicio cuenta con la Sección de Producción Animal.

- Servicio de Ayudas Directas, Encargado de Gestionar fundamentalmente las ayudas financiadas al 100% por Fondos Europeos o Ayudas directas, salvo las destinadas a la reconversión y reestructuración de viñedo y encargado de coordinar

baldintzapekotasunaren ordainketa bakarraren kontrola koordinatzeaz arduratzen da.

Lurralde historikoan dauden eskualdeko sei nekazaritza bulegoak zerbitzu honen mendekoak dira, eta giltzarri dira sail osorako.

- Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzua. Guardian dago, eta Arabako Errioxa eskualdean berebiziko garrantzia daukan mahastizaintza eta ardogintzako sektoreari lotutako guztia kudeatzen du. Gainera, mahastiak birmoldatzeko eta berregituratzeko laguntzak kudeatzen eta kontrolatzen ditu eta ziurtagiriak egiten ditu.

  Enologia Laborategia zerbitzu honen mendekoa da eta egiaztapen ofizialari eusten dio.

- Nekazaritzako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzua. Nekazaritza Saileko administrazio arloa kudeatzearen arduraduna da, baita aurrekontuaren kudeaketa eta kontrola, Landa Garapenerako Planaren ondoriozko diru itzultzeen kudeaketa, zuzeneko laguntzen ordainketaren kudeaketa eta zehapen espedienteen izapideak egitearena ere.

  Zerbitzu honi atxikita daude Nekazaritzako Makinen Erregistro Ofiziala, Saileko Titularren Erregistroa eta Nekazaritzako Ustiategien Erregistroa; halaber, aholkularitza juridikoa eta ekonomikoa eskaintzen dio sailari.

  Administrazio Kudeaketa Atalaren laguntza du, bere eginkizunak betetzeko.

2021. urtean, Aldundiaren lehentasuna Arabako ekonomiaren susperraldia izan da, COVID-19aren ondorio negatiboak arintzeko. Horretarako, susperraldi ekonomikorako plan bat onartu du maiatzaren 26ko Foru Gobernu Kontseiluaren 213/2020 Erabakiaren bidez, eta horretara bideratu ditu bere baliabide ekonomiko gehienak.

Susperraldi ekonomikoaren plan hori betetzeko, azukre erremolatxa eta patata ekoizleentzako eta behi ustiategietarako minimis laguntzak onartu ziren, guztira 1.878.367,82 euroan

Era berean, eta plan horren barruan, ardoa sustatzeko ekintzak gauzatu ziren, guztira 207.394,00 euroan.



los controles de condicionalidad y del pago único exigidos por la Unión Europea.

De este Servicio dependen las seis Oficinas Comarcales Agrarias distribuidas por el Territorio Histórico y que son pieza clave en todo el Departamento.

- Servicio de Viticultura y Enología, este Servicio ubicado en Laguardia, gestiona todo lo relacionado con el sector vitivinícola , de máxima importancia por su peso específico en la Comarca de Rioja Alavesa. Además gestion controla y certifica las ayudas a la reconversión y reestructuración del viñedo.

  De este Servicio depende el Laboratorio de Enología, que mantiene la acreditación oficial.

- Servicio de Secretaría Técnica de Agricultura, encargado de gestionar toda la parte administrativa del Departamento de Agricultura, Gestión y Control del Presupuesto, Gestión de los Reembolsos generados como consecuencia del Plan de Desarrollo Rural , gestión del pago de las ayudas directas, tramitación de expedientes sancionadores.

  A este Servicio está adscrito el Registro Oficial de Maquinaria Agrícola, El registro de Titulares del Departamento y el de Explotaciones Agrarias, realizando además el asesoramiento Jurídico y Económico al Departamento.

  Para el cumplimiento de sus funciones cuenta con la Sección de Gestión Administrativa.

En el año 2021 la prioridad de la Diputación ha sido la recuperación económica de Alava para paliar los negativos efectos de la COVID-19, para lo que ha aprobado un Plan de recuperación económica mediante Acuerdo 213/2020 del Consejo de Gobierno Foral de 26 de mayo, al que destinó gran parte de sus recursos económico

En cumplimiento de dicho plan de recuperación económica, se aprobaron ayudas mínimis destinadas a los siguientes sectores, por un importe total de 1.878.367,82 euros para los productores de remolacha azucarera, patata y vacuno.

Asimismo y dentro de este mismo plan, se ejecutaron acciones para la promoción del vino, por un importe

## 2021EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 40 NEKAZARITZA

**Programa:** 40 SAILEKO ZERBITZU OROKORRA

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2021

**Departamento:** 40 AGRICULTURA

**Programa:** 40 SERVICIO GENERAL DEL DEPARTAMENTO

total de 207.394,00 €.

### II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN GAUZATZE-MAILA

Helburuak bete dira, diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren bidez luzatu baita sailaren egitura organikoa eta funtzionala, diputatuen kontseiluaren otsailaren 9ko 14/2016 Foru Dekretuaren bidez onetsia, hartara betetzearren 2019-2023 legegintzaldirako Arabako Foru Aldundiaren sailen egitura zehazten duen diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuak xedatutakoa. 2021ean ez da aldaketarik egin egitura horretan.

### II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS

Se han cumplido los objetivos al prorrogarse por decreto Foral 324/2019 del Diputado general de 5 de julio la estructura orgánica y funcional del Departamento aprobada por Decreto Foral 14/2016, del Consejo de Diputados de 9 de febrero, dando cumplimiento a lo dispuesto en el Decreto Foral del Diputado General 324/2019 de 5 de julio por el que se determinan los Departamentos de la Diputación Foral de Alava para la legislatura 2019-2023, no habiéndose producido en el año 2021 modificación alguna a dicha estructura.